

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko uztailaren 26a

Auzolandegiak, udako aukera

■ Udako aukera eta alternatiba dira auzolandegiak. Nafarroan bada non aukeratu. Ohikoez gainera, eskaintza berria luzatu du aurten Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gazteriaren Institutuak. Osotara, sei auzolandegi ezberdin bertako, beste herrialdeetako eta atzerriko gazteentzat: Getadar, Orreaga, Elgorriaga, Lizarra, Zaraitzuarren ardibidea eta Eulate. Azken hau, hain zuzen, aurtengo auzolandegi berrietako bat da eta han izan gara lanean diren gazteak eta euren zeregina ezagutzeko asmoz. ■



Metropoli forala

FELIPE RIUS



Udan urtean zehar nagitasunaz, alferkeriaz edo astirik ez izateagatik egin gabe utzitako guztia eginen zuela zin egin zion bere buruari. Ez zuen beste batzuetan bezala denbora galduko, eta hasteko Prousten lan erraldoiaren liburu guztiak irakurriko zituen. Joyceren *Ulises* ere hasi behar zuen, ez baitzen orotzen non utzi zuen irakurtzen saiatu zen azken aldian; eta horrez gain, Cioranen lanak berraztertu eta aldizkari baterako artikulua prestatu behar zuen aspalditik ahaztuta zituen Miles Davisen disko guztiak entzuten zituen bitartean. Dena dela, ez zezala inork pentsa bera etxetik inoiz ateratzen ez diren eruditu aspergarri horietako bat zela, ez horixe. Munduko gizona zen eta munduko plazerrak ikaragarri gustatzen zitzaizkion, baina ikasturtean zehar ez zuen aukera gehigirik izaten. Bazekien,

Udarako planifikazioa

ongi planifikatuz gero, edozer gauza egin zezakeela, nahi zituen liburu guztiak irakurri, hainbat artikulu eta kolaborazio idatzi eta lagunekin atera. Suerte pixka batekin neska dotore bat ezagutuko zuen eta azken frakaso sentimentalak ahaztuko zituen. Bere buruari diziplina pixka bat jarri behar zion, besterik ez. Goizeko zortzietan altxatuko zen egunero, nahiz eta aurreko gauean berandu oheratu, eta buruan zuen programa hutsik egin gabe jarraituko zuen. Bederatzietatik hamaiketara eguneko prentsa irakurri, hamaiketatik ordu bietara bost orri idatzi, eta bazkalondoan, lauretatik bederatzietara, irakurketa sakonak eta musika ona; gauean, berri, jende interesgarri bateriko tabernetan ibiliko zen nekatu gabe. Uda hiriari pasatzeko plangintza ezin hobea. Irailean harrirtuta zeuden bere lagu-

nak, uda osoan ez zen egun batean ere azaldu betiko tabernetan eta ez zion inori esan kanpora joateko asmorik zuenik. Lanean azaldu ez zenean kezkatzen hasi ziren eta bere etxera joatea erabaki zuten. Atean jo zuten, baina ez zuen inork erantzun. Usain txarra nabari zitekeen eskaileretatik, eta okerrenea pentsatu zuten. Azkenean atea bota, barnera sartu eta egongelan aurkitu zuten tona bat zaborrek inguratutik. Erotuta zirudien, ezin zituen begiak telebistako pantailatik kendu. Lagunak bertan zeudela ohartu zenean oihuka hasi zen: «Gora Indurain, aurrera gure atletak, biba bosgarren kateko lehiaketak eta Pluseko pornoa». Gero pizza kaja baten gainean erori zen konortea galduta. Lagun batek telebista itzali zuen. Hiru hilabete zeramatzan piztuta. X

KONTZERTUAK

Lizarr: Herriko kiroldegian Luz Casalek kontzertua eskainiko du gaur, 10:00etatik aurrera.

Doneztebe: 16 Jazz Eroak taldeak kontzertua eskainiko du datorren asteazkenean, gaueko hamarretan, herriko kasinoan.

Elizondo: Club Harlem Quintet taldea herriko kasinoan izanen da igandean, hilaren 28, arratsaldeko 1:00etan, 8:00etan eta gaueko 12:00etan.

ANTZERKIA

Sorauren: Kilkarrak antzerki taldeak *Jonjoli* lana taularatuko du bihar, gaueko 9:00etatik aurrera, pilotalekuan. Igandean, berriz, Lergako plazan izanen da konpainia, ordu berean.

Morentin: Trokolo antzerki taldeak *El gran Oscar* taularatuko du gaur pilotalekuan, gaueko 9:00etatik aurrera.

ZINEMA

Galipentzu Berri: Herriko plazan, *Two much* filmea emango dute gaur, gaueko 10:00etatik aurrera. Filme bera Cabredon ikusi ahal izanen dute bihar, ordu berean, eta igandean, berriz, Arbeitzan.

Burlata: Udako Zikloaren barruan, *Tres camas para un soltero* filmea emango dute gaur, gaueko 10:00etan, Floirac plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu Gure Kabia elkarteak ikusi ahal izanen da pelikula.

ERAKUSKETAK

Elizondo: Ana Mari Marinek Bergarenea etxean ditu erakusgai bere lanak. Goizean, 11:30etatik 13:30etara dago zabalik, eta arratsaldean, 18:00tik 21:00era.

Irunberri: *Nafarroako horreoak* izeneko erakusketa ikusgai da udaletxeko erakusketa aretoan, hilaren bukaerara arte.

Iruñea: Jesus Mari Etxean Fernando Reyesen lana dago ikusgai, abuztuaren 27ra bitartean.

Lizarr: Herriko Banco Atlanticoaren aretoan, Jesus Ruiz Lonzanzen margoak daude ikusgai, hil honen bukaerara bitartean.

LEHIAKETAK

Iruñea: Antzerkirako Testu Lehiaketa antolatuta du Nafarroako Antzerki Eskolak. Euskaraz eta erdaraz aurkez daitezke lanak eta hizkuntza bakoitzeko sari baina egonen da. Lanak abuztuaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira Antzerki Eskolan.

IKASTAROAK

Iruñea: Pedro Osesen zuzendaritzapean, akuarela eta marrazki ikastaroa izanen da abuztuaren eta irailean. Parte hartu nahi duenak 23 35 58 telefonora dei egin dezake.

nafarkronika

Patxi Larrion

Zorua lurperatzen

Garestiegia nonbait. Iruñeko Alde Zaharreko zorua eraberritzeko lanek aurrerakuntzaren isla izan behar dute. Urtebete barru gure joan-etorrietan zapalduko omen ditugun harlauza edota baldosak denbora berrien marka. Gure lurraldean ezereen aldeko edota kontrako koordinadora eta talde berriak hila-betero sortzen ohi dira. Afera honetan ere, Alde Zaharreko zorua osatzen duten galtzadarriak mantentzea defendatuko duen elkarte sortu berria da. Kolokan dagoen Iruñeko hiruko Gobernuak oraingo zorua hain zaharra izatea ez-baian jarri du; gainera, gure ispilua izan behar duten hainbat hiritan tankera bereko lanak eginak dira. Bergauza argudiatuko ote zuten garaiko politikariek mende honen bigarren hamarkadan harrisia botatzen hasi zirelarik? Iru-

ñeko hiriaren zabalpen prozesuak eskatzen zuten, aurrerakuntzaren izenean, hiri osasungarriago baten alde, iruindarren hesiak bertan behera botatzeko. Beti ere, lanak ez ziren iskanbilarik gabe hasi, iskanbila baino protestak aditu ziren, Erresuma Zaharraren ondare historiko-artistikoa zaintzeko sortu zen Nafarroako Monumentuen Batzordeko zenbait kidek manifestua leitu zuten harrisia desegiteko lanen aurrean. Zaharrak berri, desadostasuna adierazteko moldean. Amaitzeko eta karriken egungo egoera aintzat harturik, Iruñea turistei edota ikastaldeekei erakusten diharduten adituentzat ene gomendioa, bisitaldi gidatu horietan, eta historia fikzioa pixka bat eginez, mendeetan zehar Alde Zaharrean izan diren zoru mota desberdinak aztertzekeo parada ezin hobea dute, galipota barne.



asteko pertsonaiak



Tasio del Arco
Prestatzaile fisikoa

■ Tasio del Arco Osasunako prestatzaile fisiko ohia da joan den asteaz geroztik. Azken bederatzi denboraldietan gorritxoaren egoera fisikoaren erantzule izan da Salamancan jaio baina Iruñean bizi den Tasio del Arco baina taldeko zuzendaritzak bere postutik kendu du. Javier Zubillagarekin egin bileran taldean jarraitzeko konpromezua hartu zuen baina hil honen 15ean, opor egun batzuetatik bueltan, bertan behera utzi zuen taldeko zuzendaritzak bere erabakia. «Minduta eta triste» dagoela aitortu du del Arcok. Osasunara iritsi baino lehenago Nafarroako Unibertsitatean eta San Cernin ikastetxean egin du lan Tasio del Arcok, baita Nafarroako Squash Clubean ere.



Santiago Cervera
UPNko zinegotzia

■ Santiago Cervera UPNko Iruñeko Udaleko zinegotzia Espainiako Irrati Telebistako kontseiluko kide izendatu zuten joan den asteazkenean, Senatuak bere izendapena aho batez onartu ondoren. «Pozik» agertu da UPNkoa bere kargu berriarekin baina iragarri duenez, «baliteke irailean uztea», Miguel Sanz, azkenik, Nafarroako Gobernuako lehendakari izendatzen badute eta Cervera kabinetea osatzeko deitzen badu behintzat. Egun, UPNko bozeramaile da Santiago Cervera Iruñeko Udalean baina kargu hori ere utzi egingen du, irailean ziurrenik, nahiz eta zinegotzi izaten jarraitu. Iruñeko Udalean, hain zuzen, 1988. urteaz geroztik dago Santiago Cervera.

ahaztu gabe!



ERDI AROKO AFARIAK

Zangoza: Zangozako Erdi Aroko Afarien laugarren ekitaldia abian da dagoeneko. Hala ere, lasai, Arturo erregearen garaiko afari eder eta oparoak ezagutu nahi badituz, garaiz zabilta oraindik ere. Karmeneko Erdi Aroko Klaustroan izaten dira afari berezi hauek, leku egokienean, hala nola. Afarian zehar Erdi Aroko jantziekin apaindutako zerbitzariek ekarri janari goxoa dastatu ezezik, afaria bukatuta, kontzertua entzuteko aukera ere izaten dute Zangozara hurbiltzen diren bisitariek. Gaurkoan, Montoya ahizpak izanen dira karmeneko Klaustroan. Abuztuaren 2an, Zangozako Haizea abesbatzak alaituko du afalondoa eta 9an, berriz, herri bereko Nora abesbatzak eskainiko du bere emanaldia. Zangozako Erdi Aroko Afarien laugarren ekitaldi honetan parte hartu nahi duenak *El Claustro* elkarteak eman behar du izena, bertara joanez (kale Nagusia 82, Zangoza) edo 43 04 97 telefonora deituz. Zenbaki berea faxez ere bidal daitezke zuak.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak.

Tutera

Santanak asteartera bitartean

Tuterako jaien hasiera iragarri zuen altxaferoak asteazkenean egin zuen eztanda

Erriberako hiriburuko jaiak izanda, jendetza ugari erakartzen dute Tuterako Santa Ana jaiak. Aurten ere, parrandazaleek ez dute huts egin. Asteazkenean egin zuen eztanda jaien hasiera iragarri zuen altxaferoak Tuteran eta beteta zegoen Foruen plaza. Datorren asteartean *Pobre de mí* abestu baino lehen, bada besta egiteko aukera ugari Tuteran.

Erredakzioa / Iruñea



Santa Anako jaiak asteazkenean hasi eta asteartera bitartean izango dira.

JOXE LACALLE

TUTERAKO zeruan joan den asteazkenean egin zuen eztanda Santa Ana jaien hasiera iragarri zuen altxaferoak. Ignacio Perez Garde UPNko zinegotziak piztu zuen suziria, «Gora Santa Ana» eta «Gora Tutera» oihukatuz eta Foruen plazan bildutako guztien poza lehertaraziz. Suziriak Udaleko zinegotzi batek piztea, hain zuzen, aurtengoek ekarri duten berrikuntzetako bat dugu, baina ez, ordea, bakarra. Bada besterik ere, entzierreroi dagokienez, aurtengoentzako bostetan.

Baina jaiak dagokienez, nahiz eta asteazkenean hasi, datorren asteartera arte iraungo dute. Parrandazaleentzat, beraz, hamalaka aukera gaurtik bitartean. Gaurko programa goizaldeko bostetan hasiko da, hain zuzen, Tuterako Aurorok Santa Anari egiten dioten aurorarekin. 6:50etan, berriz, Santa Ana Zaharren prozesia egiten dute eta 7:00etan dianak. Zortzietan entzierrero korrituko dute eta

goizeko 11:30etan, Santa Anaren prozesioa izanen da.

Herritar guztien gusturako ekitaldiak izanen dira gaur, antzerkia haurrentzat eta antzerkia helduagoentzat, alde batetik, arratsaldeko 7:00etan eta gaueko 11:45etan, eta bestetik, jotak gauerdian eta berbera goizaldeko 1:00etatik aurrera.

Asteburuan sartuta, dianek emanen diote hasiera larunbateko egunari, gaiteroen eta txarangen eskutik. Zortzietan entzierrero hasiko da Tuterako kaletatik eta 10:00etan erraldoi

eta buruhandien konpartsa aterako da kalera. Omenaldientzako lekuri ere izanen da aurtengo jaietan, Margarita Manrique Tuterako amonak jasoko du, hain zuzen San Juan peñak antolatua, eguerdian San Jaime plazan. Arratsaldean haurrentzako zinema egonen da besteak beste, eta gau partean, berriz, zezen-suzkoa, 9:30etan. Jotak eta dantzaldia ere ez dira bihar faltako.

Igande goizean ere, ohienez, dianak eta entzierrero egonen dira 7:00etan eta 8:00etan. 10:00etan erraldoiak eta buruhandiak ate-

rako dira berriz, eta 11:00etan haurrentzako parkea jarriko dute San Antonen. Haurrentzako ekitaldiak, egunero bezala, ez dira faltako arratsaldean ere, antzerkia eta beste. Gau partean, berriz, zezen-suzkoa eta su festa, eta ondoren jotak eta dantzaldia.

Santa Ana jaietan egonen diren ekitaldietako batzuk besterik ez dira hauek. Astearteko gauerdian *Pobre de mí* abestu aurretik, hain zuzen, oparora da egitaraua: Herri kirolak, pilota partiduak, kafe-kontzertua, gaueko ikusizunak eta abar. X

Lakuntza

Sakanako Turismo Gida argitaratu berri dute

■ Lakuntzako herrian egin zuten aurkezpena

Erredakzioa / Iruñea

MIGUEL ANGEL ZUBIRIA Sakanako Mankomunitateko lehendakariak eta Nafarroako Gobernuako hainbat kidek Sakanako Turismo Gida aurkeztu zuten lakuntzan joan den asteazkenean. Argitalpen honen bidez, bailaran egin diren proiektuen berri eman nahi dute bultzatzaileek, eta era berean, etorkizunean egin daitezkeen ekimenak azaldu.

Argitalpena sei atal ezberdinetan banatzen da eta Sakanako eta inguruetako mapak ere agertzen dira. Horieta, mendikateak, herriak eta eskualdeko morfologia daude ikusgai. Sakana bisitatzeko gonbitea

luzatu ezezik, turismo eta zerbitzu orokorren gida jasotzen du argitarapen berri honek. Ostatu, jatetxe, artisau, ekimen, banketxe, botika eta abarren informazioa eskuratu daiteke bertan. Sakanan egin daitezkeen hiru ibilaldi ere proposatzen ditu gidak: Arakilen, Aranzen eta Burundan. Gidaren azken atal batean, bestalde, natura, ohitura, historia, artea eta kulturari buruzko datu interesgarriak azaltzen dira.

Gidaren egileen artean Guaixe Sakanako aldizkariaren izena agertzen da. Izan ere, argitalpen honetako erredakzio taldearen ardura izan da Sakanako Turismo Gidaren itzulpena eta maketazioa egitea. X

Astitz

Mendizaleentzat aterbea inauguratu dute herrian

■ Bestalde, jaiak ospatuko dituzte asteburuan

E. Elizondo / Iruñea

ASTIZKO herriak mendizaleentzat aterbe berria inauguratu zuen joan den asteazkenean, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Aspaldiko asmoa zen herriko eskola zaharra izan zenarekin zerbait egitea herrian. Asmo horrekin erosi-zuen herritar batek baina ezin izan zuen etxeak eragindako gastuari aurre egin eta bankuen esku gelditu zen. Azkenik, bilera egiten hasi eta herriak erosi du eskola zaharra. Herriko hiru gaztek, berriz, alokairuan hartu dute aterbea aurrera eramateko. Aterbe ezezik, taberna eta jatetxea ere baditu eraikuntza berriak. Osotara,

20 milioiko inbertsioa egin behar izan du Astitzeko eskola zaharra erosi eta berritzeko.

Aterbea inauguratu ezezik, asteburu honetan, gaur, bihar eta igandean, herriko bestak ospatzen dituzte Astitzen. Bertso afaria egiten dute gaur Zerberio eta Mañukortarekin, arratsaldeko zortzietan suziria piztu ondoren. Bihar, berriz, puska biltzen ibiliko dira goizean, eta arratsaldean, mus txapelketa egiten dute. Dantza ondoren. Igandean meza ospatuko dute, eta ondoren, herri kirolak izanen dira plazan. Egun osoan zehar, gainera, trikitilariak alaituko dute giroa. Gau partean, bukatzeko, dantzaldia izanen da. X

Gares

Santiagoren omenezko jaiak abian dira

■ Asteazkenean egin zuen eztanda altxaferoak

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO beste hainbat herritan bezala, jaiak hasi dira aste honetan Garestik datorkigun berria. Garesen, zehazki, asteazkeneko arratsaldeko ordu batetan piztu zuen Julian Erro zinegotziak besten hasiera iragarri zuen altxaferoa. Orduz geroztik, jaiak da nagusi Garesko bazterretan. Herriko plaza lepo eginda zegoen suziria zeruratu zenean eta erraldoi eta buruhandien konpartsa kideak ere han ziren, gaitero eta txarangekin batera.

Aurtengo jaiak ez dute berrikuntza handirik ekarriko. Aldaketa txiki bat, hala ere izanen da. Herriko txikiak, adibidez, pozik izateko arrazoiak badituzte, astelehenean, hain zuzen, beraien-tzako rokodromoa jarriko baitute Su artifizialei dagokienez ere, izanen da berrikuntzarik, ohiko etxearen ordez, A. Caballer pirotekniak presatuko baititu aurtengo su festak.

Behien entzierrero, bestalde, ez da mendian zehar egiten beste urte batzuetan bezala, kale Nagusian barrera baizik.

Gainontzekoari dagokionez, betiko jaiak gozatzeak aukera izanen dute garestarrek egun hauetan. X

Puiun

Besta egunak iritsi dira urtero legez herrira

■ Haur eta helduentzat egitarau zabala

Erredakzioa / Iruñea

PUIUN ere Santiago jaiak. Beste hainbat lekutan bezala asteazkenean hasi ziren bestak Puiun, herritar guztien poza altxaferoarekin batera lehertaraziz. Urtero legez, Santiago ermitara prozesioa egin zuten Udaletzeko kideek asteazkenean bertan, gaueko 9.30etan eta ondoren, urte-tako ohiturari jarraikiz, sua piztu zuten kalejirari hasiera emanez. Zezen suzkoa ere ez zen lehen egunean falta.

Baina bada horretaz gain oraindik besta egiteko ha-maika aukera. Gaurko egunean, herriko haur eta gazteak izanen dira protagonista eta eurentzat izanen dira programako ekitaldi gehienak. Lehiaketak eta jokoak izanen dira nagusi goiz eta arratsaldean. Bihar, berriz, ezkonduen eguna izanen da Puiun eta herri bazkaria egiten dute. X

Auzolandegiak gazteentzat,
udako alternatiba

Eulaten aukera berria

Auzolandegi berria zabaldu du aurten Kirol eta Gazteriaren Institutuak Urbanan

Uda garaian gazte askok hartzen du parte Nafarroan zehar bertako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatzen dituen auzolandegietan. Eskaintza zabala da. Kobak garbitzen, hondakinak zainzte edo eraikin zaharrak berritzen lan egiteaz gain, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dute auzolandegiek. Eulategi gertu, Urbanako mendizerran, bertakoa ezagutzeko aukera izan dugu.

Edume Elizondo / Eulate

UDA GARAIAN, oporrak mendian edo hondartzan igarotzea erabaki ordez, auzolandegiak aukeratzeko dituzte gazte anitzek Nafarroan, baita gure herrialdeko kanpo ere. Gurean, zehazki, eskaintza oporrea da mota askotako auzolandegietan parte hartu ahal izateko. Arkeologia lanak dira nagusi batzuetan, espeleologia beste batzuetan, ondarearen zainetzea beste askotan.

Nafarroan ez dira berriak auzolandegiak. Lehenengo orain dela hamabi urte antolatu zuten Nafarroako Gobernuak, bere Kirol eta Gazteriaren Institutuaren bitartez. Izaban izan zen estrelnakoa. Geroztik asko zabalduta da eskaintza, eta gazteek badute non aukeratu. Azken urteotan arrakasta itzela lortutako Elgorriaga eta Orreagako auzolandegiez gain, bi berri antolatu dituzte aurten, Urbasa aldean bata eta Zaraitzuaren ardi-bidean bestea. Getadarren ere auzolandegi berria jarri dute aurten martxan, nahiz eta herri horretan halako ekimenak lehenago ikusi ezagutu. 1986tik 1988ra bitartean egin baitzituzten bertan lehen auzolandegiak, gazteentzako aterbea erakitzeko.

Urbasa aldeko auzolandegi berria Eulaten dago. 25 gazte eta bost begirale dira bertan, herriko zelai batean kanpatuak. Hil honen 16an ailegatu ziren Eulatera. Bertako auzolandegiko bigarren txanda osatzen dute eta hilaren bukaerara arte izanen dira herrian. Lehenengo txandan beste 25 gazte izan ziren, uztaileko lehen hamabostaldian. Joan den asteartean, ohi bezala, goizeko bederetziak aldera jakli ziren gazteak eta euren begiraleak (bost osotara), eta, gosaldia ondoren, Urbanako mendizerrarantz abiatu ziren. Talde bat herrietik gertu gelditu zen eskalatzeko, kobazuloak garbitzeaz gain, espeleologia bertikalaren teknikak ezagutu eta ikastea baita auzolandegi honen helburu. Beste erdia, Cristinoen kobazulorantz abiatu zen. Herrietik ordubetara dago, gutxi gora-behera, oinez. Pago eta iratze artean topatu genituen kobazuloko sarreran. Ez ziren bakarrik baina.

Zudairen mota askotako kirol ekitaldiak egiten ari den gazte talde bat Cristinoen kobazulora iritsi zen asteartean, bertako auzolandegiko kideen lana ezagutzera. Jose Antonio Sanz Lizarrako auzolandegiko zuzendaria ere, berea utzita, lankideen auzolandegira abiatu zen Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko hainbat kideekin ba-

tera, ekimen berria gertutik ezaugarriko.

«Gazteak kontzientziatzea da gure lana» • Kobazuloko sarreraren bertan ikusi daitezke Eulategi gazteek egin duten lana. Hartzeko eskailerak agerian dira, estaltzen zituen lurra gaitetik kendu ondoren. «Ez dakit zenbat aldiz erori ginuen hasieran», gogoratu du Las Palmastik etortitako 16 urteko Rael. Auzolandegi batera datorren lehen aldia du hau, eta hala da Madrildik etortitako Cristinarentzat ere. Raelen espero baino askoz gehiago aurkitu du auzolandegian: «Inoiz ez nuen hainbeste gauza berde ikusi, zoragarria da». Cristinak, berriz, ez zuen uste kobazulo batean lan egin behar izan zutenik. Hala

Karmele Blanco:
«Gure lana hona
etortzen diren gazteak
kontzientziatzea da,
orain arte gertatu
dena errepikatu ez
dadin»

Jesus Fernandez de Muniain: «Kobazulo batera
lehen aldiz etortzen
denarentzat zoragarria izan
behar du honek, oso gutxi
ezagutzen den ingurua
baita»

ere, hasierako ezustekoa pasatuta, kontent da. «Iparraldea ez nuen ezagutzen eta banuen gogoia. Oso polita da dena eta agian izuluko naiz». Gurekin hitz egin bitartean, lanean jarraitu dute, beste hainbat kideekin batera, kobazuloko sarreran. Orain artean, 80 edo 90 kilo zabor ateratu dute Cristinoen leizetik.

Kobazuloaren barruan, gasolnarekin ibiltzen den generadore batek pizten dituen bonbilak ezezik, Jesus Fernandez de Muniain Nafarroako Espeleologia Eskolako eta Lizarrako Espeleologia Taldeko kideak kaskoan duen sugarrak ere argitzen ditu bertan diren aurpegiak. Zudairetik etorri den taldea —murtziarrak gehienak— hitzik galdu gabe jarraitzen ditu auzolandegiko begiraleak ematen dituen azalpenak. Baita guk ere.

«Akuiferoak garbitzera etorri gara honat. Ba al dakizue zer den akuifero bat? —inork ez du erantzun— Akuifero bat, adibidez, Urbasa da. Ura gorde eta pikkanaka botatzen duen mazihoa da Urbasa. Ura bota eta iturriak eta iturbegiak sortzen dira. Uredararren iturbegia adibidez. Horra joaten da Urbanako uraren % 80 edo 90».

Fernandez de Muniainek ai-

patu digunez, oso kobazulo ezaguna da Cristinoena eta inguruko herrietako biztanleak bertara joan izan dira bestak egitera, eta baita artzainak ere aterbe bila edo hildako animaliak botatzera. «Zumalakarregi bera askotan ibili zen hemen, eta gerra karlistako hildakoak ere badaude koban». Horren guztiaren ondorioz, ez da batera ona —auzolandegiko gazteak iritsi baino lehen behintzat— egun duen itxura. Kobazulo barruan, adibidez, laku txiki bat dago, baina Lizarrako Espeleologia Taldeko kideak dioenez, «bertako kutsadura jada ezin dugu garbitu, organikoa baita, kobazulora bota duten zaborren ondorioz». Ez da, ordea, dagoen kutsadura bakarra. «Kutsadura estetikoak garbitzera eto-

Gazteak, berriz, pozik dira oso Eulaten. Herritarren artean, gainera, berehala integratu dira. Futbito txapelketa eta guzti antolatu dute herriko gazteekin. Gauero elkarrekin ibiltzen dira.


Auzolandegiko gazteen artean ere polita da dagoen giroa. Hiru nafarrak dira, bat Kanariar Irletakoa eta beste bat Galiziakoa: gaintontzeakoak, berriz, Sevilla, Madril eta Alacantekoak. Hamasei eta hamazazpi urteko gazteak guztiak. Rael kanariararentzat jende berria ezagutzera da garrantzitsuena, «bakoitzak beste berriz gauza berriak ikastea. Leku ezberdinetakoak izanda, gure hitz egiteko modua propioa ere badugu jada».

Kobazulotik atera eta goizeko lana bukatuta, bazkalorduan erraz antzeman daitezke Raelen aipatu batasuna. Pagoen azpian eseri eta txintik erran gabe jaten dituzte makarroiak eta xerrak. Postreko fruta. Hilaren amaieran bakoitza bere herrira itzuliko da. Argazkiak ateratzeko ordua. Taldeka, binaka, nesken artean, mutilen artean, denen artean.


Aurten abian jarritako auzolandegi bateko lehen partaideak izan dira, baina ez azkenak. Jose Ignacio Ausin Nafarroako Kirol eta Gazteri Institutuko kideak datorren urtean ere izanen dela ziurtatu digu. «Eta ahal bada, halako auzolandegi gehiago antolatuko ditugu». Ez da asmo txarra.

Lizarrakoak zortzi urte • Eulategi auzolandegi berriaren ondoan, Lizarran, zortzi urte darama abian bertakoak eta munduko osoko gazteen bilgune da. Hasieratik dago bertan Jose Antonio Sanz zuzendaria. Auzolandegiko honen helburua Hilobi Santuaren elizako hondakinak zaindu eta bisitatu ahal izateko ingurua prestatzea izan da. Zortzi urteren ondoren, lana amaitzear dago.


Uztaleko aste hauetan Euro-pako, Estatu Batuetako, Kanadako, Japoniako, Marokoko eta Aljeriako 16-17 eta 18-26 urte bitarteko gazteak izan dira Lizarran lanean. Munduko hamaikakaz baxerretatik Lizarrara joateko duten arrazoiez galdetu diogen Jose Antonio Sanz zuzendariari: «Mota askotakoak dira. Ikasketak bidala da askorentzat eta Lizarratik beste hainbat auzolandegira joaten dira. Hizkuntza ikasketako aukera da beste batzuentzat. Gehienak, hala ere, jende berria ezagutzera etortzen dira». Uztaleko txandak amaituta, 18 eta 28 urte bitarteko gazteak iritsiko dira abuztuaren Lizarrara. X




Taldeko gazteak Cristinoen kobazuloan sartzen.
MANU MUJICA



Eulategi auzolandegiko gazteak gogor egin dute lan paretetako zikinkeria kentzeko.
MANU MUJICA



Kobazuloan materiala erabiltzen ikasi dute lehendabiziko gazteek.
MANU MUJICA

Auzolandegiak gazteentzat,
udako alternatiba

Jesus Fernandez de Muniainek suteek kobazuloan utzi duten zikinkeria erakusten du.
MANU MUJICA



Pintadak nonahi agertzen dira kobazuloan, berriak eta aspaldikoak.
MANU MUJICA

Uda pasatzeko modu anitz

EULATEN EZEKIK. Nafarroako beste hainbat herritan, beste herrialdeetan eta baita beste hainbat herritan ere uda pasatzeko aukera izanen dute nafar gazteek aurten. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren eskaintzari esker, Aurtengo programa, hain zuzen, lau zatitan banatzen da: Nafarroako ekitaldiak, ekitaldiak beste Elkarte Autonomoetan eta atzerrian ere—.

Nafarroan bertan egin daitezkeen ekitaldien artean, bada non aukeratu. Altsasuko eskaintza joan den ekainaren 28an hasi zen eta hil honen amaierara arte iraungo du. Bost txandatan Aralarko mendizerra ezagutzera izan dute helburu —eta badute oraindik ere— parte hartu duten eta hartzen ari diren gazteek.

Lekaroz ere bada

nafar eta gazte atzerri-tarren bilgune egun hauetan. Ingalaterrako hamahiru eta hamabost urte bitarteko gazteak nafarrekin bizi dira bertan ekainaren bukaeratik eta hila bukatu arte. Bada beste ekitaldirik Lekarozen ere honetaz gain. Abuztuaren 2tik 16ra, hain zuzen, Murtzia, Valentzia eta Nafarroako hamabost eta hamazazpi urte bitarteko gazteak. Baztan bailara, Bidasoa erreka eta Orioko estuarioa ezagutzeko aukera izanen dute. Iratiko oihana, Pirinioak, eta Urbasa mendizerra ezagutzera izan dute helburu —eta badute oraindik ere— parte hartu duten eta hartzen ari diren gazteek.

Beste herrialdeetako gazteak Nafarroara

etorri ezezik, bertakoek Espainiako Estatuko beste herrialdeetara joateko aukera ere badute uda honetan, Kantabria, Extremadura, Valentzia, Murtzia, Asturias, Gaztela-Leon, Gaztela-Mantxa eta Galiziar zehazki, baita Euskal Herriko gaitz nontzeko herrialdeetara ere.

Atzerriko beste herriak ezagutu, bertako hizkuntza ikasi eta bertako gazteak nola bizi diren jakitzeko aukera ere badute aurten gazte nafarrek, atzerrian ere antolatu baitu hainbat ekitaldi Kirol eta Gazteriaren Institutuak. Hiru herri aukeratu dituzte aurten nafarrekin ezagutu ditzaten: Erresuma Batua, Alemania eta Frantzia.

Auzolandegiekin amaitzen da Kirol eta Gazteriaren Institutuaren eskaintza zabala. Eulaten ezezik, Elgorriaga, Orreaga, Lizarra eta Zaraitzuaren ardi-bidean egiten ari dira

auzolandegiak egun hauetan, hilaren amaierara arte batzuetan, abuztuaren 15 edo 18ra arte beste batzuetan. Getadarren ere izan zen auzolandegia baina lehenago amaitu zen, hil honen erdialdean. Beste Elkarte Autonomoetan eta atzerrian ere bada aukera.

Elgorriagako auzolandegian, errota zaharra eta ikuztegia moldatzen ari dira, baita ibaiertzak garbitzen ere. Lizarran eta Orreagan, berriz, arkeologia da zeregin. Lizarran Hilobi Santuaren ardi-bidean, lehen aipatu bezala, eta Orreagan, berriz, kolegiatan. Zaraitzuaren ardi-bideari dagokionez, berau moldatzen ari dira auzolandegi horretan parte hartzen ari diren gazteak. Getadarren, azkenik, gazteentzako aterbea eta bere ingurua moldatu zuten azken asteetan izan ziren gazteek. X

Xanti Begiristain

Indioak eta euskaldunak

Orain dela egun batzuk telebistan ikusi nuen pare bat programa Ipar Amerikako indioei buruzkoa. Zirudenez, nahiko ongi dokumentaturik zeuden saio horiek.

Betidanik jakin izan dut zinemako filmeak oker zeudela, alderdikieriaz eginak zeudela, alegia. Indioak ia-ia beti izan dira gaiztoak eta azalzuriak, berriz, onak, fededunak, zibilizatuak eta kasik santuak. Baina bi dokumental horiek ikusten nituen heinean konturatzen nintzen gero eta arrazoi gehiago zegoela pentsatzeko indioak ez zirela pelikulako gaiztoak, eta bai, aldiz, pertsona zuri askoren jokabideaz galanki lotsa gaitezkeela.

Bi programa horietan zehar kontatzen zuten, nola edo hala, Ipar Amerikako Estatu Batuen historia, edo agian hobe esanda, Europako lehen kolonizatzaileak iristen hasi zirenez geroztik bertako biztanleei, hau da, indioei, pertsona zurien erruz, pairatzea egokitu zitzaizkien mila eta bost miseria.

Esan bezala, aipatutako bi programa horietan makina bat gauza eta xehetasun kontatu zuten; ezina da hemen denak deskribatzea. Behar bada saiatuko naiz adierazgarrienak azpimarratzen. Oso zail egiten zaite, asko eta konplexuak zirelako, baina hala ere egingo dut ahalegin txo bat. Esate baterako honako gauza hauek ikusten ziren: europarrak iritsi zirenean indioek egin zieten harrera ona, indioek pentsatzen zutela pertsonak Ama Lurra-rena zirela eta europarrek, berriz, lurra pertsonena zela; honen ondorioz, europarrak eta beren ondorengoak hasi zirela hainbat lurraldetaz jabetzen, basoak erretzen larre

bihurtzeko, lurrak lantzen eta abar. Jokamolde hori bertako indioek ezin zuten ulertu, eta horrela hasi ziren berebiziko gatazkak; azalgorriek, betidanik berena izan zena defenditu baino ez zuten nahi, bestaldetik, hori ez da batere harrigarria beren etxean bertan eraso jaso ondoren.

Baina azalzuriek behin baino gehiagotan azaldu zuten beren mugagabeko maltzurkeria eta hasi ziren hitzarmenak eta tratatuak sinatzen, nolabait muga batzuk finkatzeko, paina pertsona horiek izan ziren behin eta berriz beren hitza berbera lotsagabeki jan eta itunak puskatu zituztenak. Borrokak anitzak, luzeak eta arrunt ankerrak izan ziren bi aldeetatik, baina bizikiagoak oraindik kolonizatzaileen aldetik, azken hauek, arma moder-

no eta Gobernu eta Armadaren laguntza baitziztuzten. Martxa horretan gizaki txuriek lortu zuten indioak erreserba batzuetan zokoratzea. Bitartean Gobernuak ordaintzen zien ehiztariei diru kopuru polita bisontek hil zitzaizten. Animalia horiek indioen bizimoduan funtsezko garrantzia zuten.

Txuriak horrekin guztiarekin konforme ez eta orduan hasi ziren erreserbetako lurra indioen artean banatzen, saltzen, pribatizatzen eta abar. Indiarrek ezin zuten ulertu beraiek Lurrarenak izanik, nola txuriek beren alorrak banatzen zizkieten. Gehiago oraindik, indioei lur eremu txikiak eman zizkieten eta gainerakoa azalzuriak saiatzaren ziren erosten. Indioek eskubideak galdu zituzten erabat ordurako, baina estatubatuar zibilizatuak oraindik jarraitu zuten beren azpikokoa egiten. Nola? ba, gero eta era sofistikatuago batez, konparaziora, 100 eta 200 kilometrorara zeuden eskoletara eramanez haurrak, beren hizkuntza mintzatzea debekatuz, zigortuz, desideologizatuz, modu eta eraentza militarrez heziz eta tratatuz, ilea



moztuz eta abar. Azken finean, Estatu Batuen helburua zen indioak estatubatuar zibilizatu huts bihurtzea. Gaur egun indioak sakabanatuta bizi dira, zokoratuta, eta langabetuen eta drogazaleen kopurua handia da euren artean. Urtero edo bi urtetik behin elkartzen dira beren jaiak egiteko eta harremanak sakontzeko. Orain oso indio gutxi dira; garai batean bost milioi edo izan omen ziren. Herri gisa bizirautea saiatzaren ari dira baina etorkizuna beltza omen da beraiantzat.

Joan den asteko Nafarkarian irakurri nuen nola espainiarrek mende bakar batean euskara desagertarazi duten Erronkari ibarretik. Ez dakit zergatik baina azalgorri sentitzen naiz. ■

Klasiko bitxi • arrunt klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida VIII: Donostiako Katalinak


Gonzalo Zulaika Arregi Aita Donostia kaputxino musikariaren sendikoa genuen 1889.eko apirilaren seian sortu Katalina Eleizegi Maiz donostiarra. Magisteritza ikasketak burutzeko xedez Burgos aldera jo zuen, alabainan arras gutxitan aritu zen irakasle zeukan osasun kaxkarra zela bide, bronkitis kronikoa baitzuen, biri hodian marrantadurak arnas estutzarra eragiten ziola. Osasunarena kezka nagusi, lekuz leku eta tokiz toki ibili zen beti pausagunerik aproposenaren xerka. Donostia. Oiartzun, Bidania, Amasa, Ituren, Burgos eta Madrilen egon ostean bizitzaren ondarreko hogeitasei urte Lizarran eman zuen, bertan zendu zela 1963.eko azaroaren 19an. Idazle findua, euskal literaturgintzan antzertiarrena jorratu zuen bereziki, eta 27 urte zituela bere lehendabiziko antzezlan sariztatu zioten, *Garbiñe* zeritzana hots. Hauxe Donostiako Udalak 1916.ean antolatu lehiaketan lehendabiziko saria eskuratu zuen lana dugu, ber urteko Santo Tomas egunean Antzoki Nagusian antzeturik, eta geroxeago. Gazletuko Gazte Alaien eskutik hainbat eta hainbat herritan ere errepikatuko zena. XIII. mendean giroturiko lana amodiozko istorioa dugu, Galdosen *Mariñela* idazkiaren antzekotasun bat baino gehiago erakuts ditzakeena. Toribio Alzagaren aburuz hauxe ez litzateke izkiriatzen hasten den idazle baten lana, umotasunera heldu den batena baizik: *«Egilleak antzez lagunak margotzean euskal ikur berezia ezarri nai izan zien ta giro ortan doa antzezkizun osoa; ezta lipar batean ere aultzen auziaren gero eta indartzenagoz dijoan lillura; elkar izketak egillearen asmenta ta leuntasuna ditu nabari, ta izkerā adetik jatortasun ikasgarria diragarkigu»*. Zetorren urtean argitara eman zuen Tolosako E. Lopezen etxean. Bigarren antzezlanaren ildo beretik abiatu zen eta giputzen hiriko Udalak 1918.ean eratu sariketa berean berriz ere lehendabiziko saria eskuratu zuen Katalina andrearen Kantabroen gerrateak gai nagusi zituen *Loretī* izenburukoaz. Honakoan Donostiako Loliola'ren Eneko Deunaren irarkolan inprimatu zen izenburu honenpean: *Loretī, iru egintzetan eratutako antzerkia*. Hirugarren antzezlanaren *Jatsu* izenburuko dugu, Nafarroa azpiratu zenekoaz hiru ekitaldiko drama, 1934. urtean taularatu zuena. Beste idazkiren bat ere argitaratu gabe laga zuen, aitzineko herikide nahiz izenkideaz ondu zuen *Erausoko Katalin* besteak beste.

Etzen hura bestalde beste Katalin honezaz oretu lehendabiziko istorioa. XVI. mende ondarrean eta Donostiako Trinitate karrikan genuen sorturik Katalina Erauso Perez-Gallarraga, moja alferrez bezala ezagunagoa izan zena. Lau urte besterik etzituela Antiguoko dominikoen mojetxean sartu zuten, non bizitoki bakarra izanen zuen ezkondu edo zinitzak bete arteraino. Hantxe orduko jakintza gaiak, latina barne, azal eta xumeki ikasi zituen, baina zeraman bizitza mojegai arrunt batena zuen, gazte batendako ezertan laketgarri izan ahal etzena. Gurasoek profesioa egin zezala erabaki zuteneari, naski bere gogoz kontra, eta komentuan sartu berria zen Katalina Aliri alarguntza aberatsarekin izaniko kalapita aitzaki maitzaki, anka egin zuen bere etxe santutik bizitza gatz eta piperdunago baten kausitzeko aihoz. Lehendabiziko helmuga Gasteizen bilatu zuen, eta gizonez jantzirik, amaren lehengusina batekin ezkondu zegoen Franzisko Zerralta katedratikoaren etxean sartu zen mutil. Arabako hirian tenore exkaxa eman zuen, eta berehalaxe gorteko hiria zen Valladolidera buruz jarri zen abian. Bertan erregearen idazkaria zen Juan Idiakezen zerbitzuan sartu zen, baina hara non bere aita handik agertu zen halako batean eta berriz ere bideari lotu beharrean ikusi zuen bere burua. Hurrengoan Bilbon dugu, non gartzela ezagutu zuen berataz trufa egin zuen gizon bat harrikatzeagatik. Geroxeago bi urte eman zituen Lizarran Arellanoko Alonsorenean, eta handik, bere burua frogatu nahian, Donostiara jo zuen. Bertan bere amaren mutur-erretan ere azaldu zen, baina inork etzuen ezagutu, eta frogaren bermetarekin, Ameriketara joan zen. Itsasoz bestaldean borrokari sutsu eta rapil agertu zen, eta alferrez gradua erdietsi zuen Alonso Diaz Ramirez de Guzman ezizenaren azpian. Asko eta asko izan ziren ospea erakarri ziotenak, baina autobiografia egin izanari zor diogu benetan egundaino iritsi zaigun ezagupena. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko hirugarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 29an jokatu. **Felix Izeta** (Euskal Herria), 2.495 ELOkoa — Julio Granda (Peru), 2.605 ELOkoa.
1. d4, d5; 2. c4, c4; 3. Zf3, Zf6; 4. e3, c5; 5. Ac4, e6; 6. De2, a6; 7. c5, Ac5; 8. 0-0, Zc6; 9. e4, b5; 10. Ab3, Ab7; 11. e5, Zd7; 12. Gd1, Db6; 13. Af4, Zd4; 14. Zd4, Ad4; 15. Zd2.
Txuriek eskaintza egiten dute. 'Ab2' eginez gero, azterketarako zelaia zabaltzen da, beltzentzako etekin garbirik gabe.
15.....0-0; 16. Zf3, Af3; 17. f3.
'e5-eko' peoia ez galtzeko. Egindako zuloa dirudiena baino garrantzitsuagoa izanen da.
17.....fG-d8; 18. Gd2, Zf8; 19. Ag5, Gd7; 20. aG-

d1, aG-a7; 21. Ae3, Ae3; 22. De3, Db8; 23. f4, Gd2; 24. Gd2, Gc7; 25. gd6, a5; 26. Dd2, a4.
'b4-ko' peoia ahul utzi dute.
27. Ac2, Da8; 28. a3, Gc8; 29. Ad3, Zg6. Beltzen asmoa eraso dugu. Peoiaren defentsa txikiak da.
30. Ab5, Zh4; 31. Ac6.
Jokaldi salbatzailea. Baita 'f3-ko' laukia babesten duelako ere.
31.....Db8; 32. Db4. Hanka-sartzea da. Dama ongi kokatua zegoen.
32.....Dc7, 33. Da4, g5. **Ikus koadroa**. Beltzen kontraeraso indartsua da. Peoia janez gero, 'Zf5' dago.
34. Ae4, Dd6. Mate mehatxuak (Gc1) kondenatu ditu txurik. Nahaste-borrasteen sartzearen ondorena.





Leitzako Abesbatza, 1968ko apirilean ateratako argazki batean. Aurpegi ezagunak antzeman daitezke kantarien artean.

EGUNKARIA

Asketak egin du bere kasketa

Leitzako abesbatzak herriko kantuzaletasuna ospatzeko egitarau musikala antolatu du

Herrian betidanik izandako kantuzaletasuna kanporatu eta ospatzeko asmoz, Asketa Leitzako abesbatzak hiru egunetako egitarau musikala antolatu du herrian. Atzo hasi ziren ospakizunak, Hodeiertz Tolosako abesbatzak herriko zineman eman zuen emanaldiarekin, eta gaur 'Easoko Ederrak' antzerki-musika lana ikusi ahal izango da toki berean. Bihar izango da egun nagusia, leitzar guztiarendako prestatutako kontzertu eta erromeriak.

Alberto Barandiaran / Iruñea

ASKETA TALDEA 80ko hasieran osatu zuen Juan Jose Aizkorbe Leitza zegoen apaizak, neska gazteekin osatu ere. Abesbatzak hasiera izan zuen garai hartan musikazaleek nabari zuten hutsunea herrian, ez baitzen orduan kontzertuak edo erreperitorio finkorik zuen talderik. Hasiera ez zen batere txarra izan, Getzaurre herrian Eguberritan egiten zen lehiaketara joan eta bigarrenak gelditu baitziren neskek. Horrek animatu egin zituen, eta aurrera egitea erabaki zuten. Handik gutxira koroan mutikoak ere sartu ziren eta egun mistoa da. Gaztea, hala ere, 16 urtetik 30 urte bitartekoa.

Ez da hau Leitzak izan duen koro bakarra, aspaldiko Leitzako Koruak ireki baitziren herrian beti

izan den kantuzaletasun horri kanpora atera eta jendaurrean aritzeko aukera. Kantari asko eduki eta atzerrian arrakasta handia izan zuen abesbatza hura desegin zen zenbait arazo zirela medio, eta hantxe aritutako askok Jeiki taldea sortu zuten ondoren. Honek mail polita lortu zuen, eta lehiaketa frankotan parte hartu zuen. Gehiegizko lotura, halabaina, kantuzaletasuna erruz zuten askorendako, eta Jeiki ere utzi egin behar izan zuen talde egitura hori, saioak eta prestakuntzak. Ez dute, hala ere, kantatzeko ohitura galdu, eta gehienbat mezetan aritzen dira. Bi talde horiek jorratutako bideari errelebo gisa sortu zen, bada, oraingo Asketa, eta eutsi egin diotela ezin uka. 35 lagunek osatzen dute egun taldea, eta umeentzako taldea ere —Asketa

Txiki— hor dute, behar dena.

Gazteak eta euskalzaleak • Bi ezaugarri azpimarratzekotan, gazteak direla eta gehienbat euskaraz abesten dutela. Lehena bitxia eta eskertzekoa da oso, Inazio Iturrarte taldeko kideak azaltzen duenez. «Taldea bakarrenetakoa izango gara Nafarroan, beste abesbatza gehienetan jende larria delako nagusi. Are, jende larria dago bakarrik horietako askotan eta gazte gutxi izaten dira». Bere erreperitorioan, bestalde, nagusitasun osoa daukate euskarazko abestiek, nahiz eta latinezko eta italierazko hainbat musika-lan ere abestu izan dituzte mezetan.

Juan Bautista Irazoki dute egun zuzendari, Aizkorbe herritik joan zenean taldearen ardura

hartu zuena. Berarekin hasi ziren mutikoak taldean sartzen, eta bera ere arduratu zen lehen-dabiziko urteetan umeak prestatzen, baina egun zeregin hori Mikel Garziandiaren esku dago. Euskal Herri osoan zehar arituak, iaz sortu zitzaizen kanpora ateratzeko aukera, eta, hango orfeoak gonbidatuta, Kataluniako Vilanova i la Geltru eta Bartzelonara joan ziren, lau egunezko bidaia eginez. «Hori izan zen gure bidaia» esan du Iturrartek, «eta oso esperientzia dotore izan zen. Lehiaketetan eta parte hartu? ez dugu baztertu, baina asko landu egin behar da bide horretan sartzeko, eta aukerak ere ez zaizkigu etortzen».

Egiten ari den taldea baita Asketa. Gehienak ikasleak, nahiz eta batzuek hamabost urte daramatzaten taldean, oraindik

Inazio Iturrarte: «Gazteei dagokienez, talde bakarrenetakoa izango gara Nafarroan, beste abesbatza gehienetan jende larria delako nagusi»

Juan Bautista Irazoki dute egun zuzendari, Aizkorbe herritik joan zenean taldearen ardura hartu zuena.

gora-behera handikoak dira saioak, oraindik sumatzen dute jendea ez dela gehiegi hurbiltzen kontzertuetara —lehiaketetara ez bada—, eta urteak igaro beharko direla oraindik denek zainetan daramaten musika hori bete-betean kanta dezaten. Hori dela-eta, oraindik taldean bertan aipatu egiten da kontzerturik onenak afalondoetan entzuten direla. Herrian oraindik kantuzaleen zaletasun hori galdu ez denaren seinale.

Gaur 'Easoko Ederrak' • Hori da, bada, hiru egun hauetan ospatzen ari dena. Atzo, Hodeiertz Abesbatza kontzertu erakargarria eskaintzeko zen, euskarazko zein atzerriko musikekin osatuta. Talde hau 1983an sortu zen, eta 15 eta 30 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Polifonia eta kantu koraleko lehiaketa ugaritan lehenengo saria eskuratu du, eta, aipatzekotan, Aviles, Ejea de los Caballeros (Espainia), Neerpelt (Belgika), Varna (Bulgaria), Gorizia (Italia) eta Tolosako lehiaketa aipatu behar. Gaur Easoko Ederrak izeneko lana ikusi ahal izango da herriko zineman, antzerkia eta kantua modu bereziz nahasten duena. Donostiako Orfeoiko eskolako neskek osatzen dute taldea, eta betiko musika komedia fin, atsegina eta ausart bihurtzen dute. Zuzendaritza eta gidioia Agurtzane Intxaurragaren esku dago eta pianoan M^a Jose Bergarak laguntzen die. Zarzuela, mambo, musika arina, beltz izpirituak, alemaniar eta amerikar musika... denetarik entzun eta ikusi ahal izango da ikuskizun bitxi honetan.

Bihar leitzarrendako eguna izango da, abestu, abesten eta, zergatik ez, etorkizunean abestuko duten guztiarendako eguna. Egitaraua gaueko zortzietan hasiko da, Asketa eta Jeiki taldeen eskutik izango den meza kantuzaleekin, eta gero, kontzertua izango da elizan. Bertan ez dute parte hartuko soilik egun ari direnek, baina noizbait abesbatzetan egon direnek ere. Hori dela-eta, kanta ez sobera zailak entzun ahal izango dituzte leitzarrok, bilatzen dena ez baita kalitate, jendearen partaidetza baizik. Besteak beste, *Ama begira zazu*, *Maitia nun zira*, *Jeiki jeiki* eta *Gabilzan kalez kale* —hau txistularien laguntzarekin— kantatuko dira.

Ondoren, herriko plazan, herritar guztiei irekitako afaria izango da, eta afalostean, Etzakit taldearen eskutik herrian zehar erromeria dago antolatuta. Askoren ustez, orduan entzun ahal izango dira eguneko kantarik ederrenak. X

Egiten ari den taldea da Asketa. Hori horrela izanik, oraindik taldean bertan aipatu egiten da behin baino gehiagotan, kontzerturik onenak afalondoetan entzuten direla

Bihar leitzarrendako eguna izango da, abestu, abesten eta, zergatik ez, etorkizunean abestuko duten guztiarendako eguna. Meza kantatua, kontzertua, afaria eta erromeria izango da

◆ Ana Coranti ◆ Psikologoa

«Prostituzioa gai ezezaguna da»

Prostituzioa gai ezezaguna da Ana Corantiren aburuz. Horren inguruan jasotzen dugun informazioa moral bikoitzak manipulaturik heltzen zaigula iritzi dio. Desinformazio hori gainditzeko, prostitutekin lan egiteak ematen dion lehen eskuko informazioaren berri eman zuen joan den asteazkenean UEUko sexologia ikastaroan. Gaur gauza bera egin du honako orrialde honetan.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

PROSTITUZIOA hitza entzuten dugunean hamaika topiko pilatzen zaizkigu buruan: horretan halaberharrez lan egiten duten emakumeak, hiesa, sexuaren bitartez transmitzen diren gaixotasunak... Emaize elkartekoan aburuz, estereotipo horietatik haratago begiratu beharra dago, prostituzioaz iritzi finkoa eduki ahal izateko.

■ **Prostituzioaz mintzatu zarete Emaize elkartekoak UEUn, zein izan da zuen helburua?**

UEUra etortzeko gaia prestatu genuenean ez genuen sekulako erretolika sartu nahi, ez genuen datu mordoa eman nahi, ez genuen gure lanari buruz soilik hitz egin nahi. Gure helburua jendea iri prostituzioari buruz pentsaraztea zen. Gure ustez prostituzioa gai ezezaguna da. Jasotzen dugun informazioa moral bikoitzak manipulaturik heltzen zaigu. Informazio horrek ideia ilun eta irrealak sartzen du geure buruan, eta ez dugu mundu hori benetan ezagutzen; ez mundua ez eta prostituten ahotsa ere.

■ **Oker ez banago, zuen asmoa gaurko hitzaldian prostituta b... k hitz egitea zen.**

Askotan kanpoko jendeak hitz egiten du gai honi buruz, eta istorio hori benetako protagonistek kontatu beharko lukete. Saiatu behar dugu beraien ahotsa entzuten. Kontua da oso zaila dela aurpegia ematea. Pena izan da prostituta ez etortzea. Deituta zegoen baina ezin izan du etorri. Hala ere, bideo bat ekarri dugu bi prostituten testigantzarekin.


Nik uste dut jendea pentsatzera bultzatu dugula, eztabaidatzera bultzatu dugula, prostituzioari buruz zer uste dugun azaltzera bultzatu dugu. Batzuetan oso liberalak gara, eta prostituten alde gaude, baina prostituzioa bera zer iruditzen zaigun ez daukagu batere argi. Gure helburua jendea gaurko hitzalditik iritzi propio eta garbi batekin ateratzea zen eta zera esatea: «Jaso dudun informazioarekin iritzi garbi bat lortu dut, jada badakit zer pentsatzen dudun gai honi buruz».

■ **Zer zuten esateko prostitutek?**

Bideoak bi prostituten jarraira kontrajarriak azaltzen ditu. Batetik, prostituzioa utzi duen emakume baten mintzoa entzun dugu. Bera elkarte batean sartu da, eta horren laguntzaz gainontzeko prostitutei lanbide hori uzten lagundu nahi die. Bestetik, prostituzioan gustura dabilen emakume baten testigantza ikusi dugu. Bera lanbide horren duintasunaren alde borrokatzen ari da. Prostitutentzat zenbait eskubide lortzen saiatzen ari da, eta bere helburua prostituzioa beste edozein lan bezalakoa izatea da.

■ **Prostituzioan gustura dabilen emakumearen irudiak estereotipo asko hausten ditu.**

Maiz uste dugu prostitutek behartuta egiten dutela egiten duten lana, eta beste edozein lan egiteko desiratzen daudela. Hain zuzen ere, badira euren lanarekin gustura dabiltzan prostitutak. Agian, ez daude pozik gaur egun pairatzen dituzten lan baldintzekin,



Ana Coranti prostituzioaz mintzatu zen UEUn asteazkenean.

ELENA ASTIGARRAGA

baina prostituzioa bera lan bezala nahi izan dutelako hautatu dute. Euren helburua duintasuna lortzea eta berez dagozkien eskubideak eskuratzea da.

■ **Oker ez banago azken bolada honetan prostituten elkarteak indarra hartzen ari dira.**

Italian eta Estatu Batuetan aspaldian sortu zituzten prostituta elkarteak. Hemen topaketa batzuk izan dira, eta horiek animatuta elkarteak sortzen hasi dira. Batzuk prostituzioa desagertarazteko lan egiten ari dira, baina best batzuk besterik gabe euren

eskubideen alde borrokatzen ari dira. Arazda da normalean teletibistan eta egunkarietan agertzen den informazioa eta irudia moral bikoitzak manipulaturik heltzen zaigula.

■ **Prostitutekin ezezik, hiesaren inguruan ere lan egiten duzue zuek. Bi munduok elkarrekin aurkezten dira maiz.**

Tamalez horrela da, bai. Gogoratu beharra dago azken datuen arabera prostituten % 12k besterik ez dutela birusa. Bestalde, ez dugu zama guztia haien bizkarrean paratu behar. Bezeroek

izugarriko ardurak dute, ez bakarrik emakumeek. Ez dira emakumeak zaindu behar direnak. Gizarte osoa zaindu behar da, eta bezeroak ere garrantzitsuak dira hor. Prostituzioari buruz hitz egiten den bakoitzean hiesa eta gaixotasunak aipatzen dira, baina badira beste gauza batzuk. Hiesaren gaian arrisku taldeak ahanztu egin behar dira, eta arrisku praktikei buruz hitz egin behar da. Hasierean asko hitz egiten zeri arrisku taldeez, baina egun praktikei egin behar zaie kasu. x

S o s l a i a

Ana Coranti psikologo gazteztarra da. Betidanik baztertutako emakumeekin egin du lan, sexu heziketan eta famili plangintzan. Duela hiru urte, beste bost emakumerekin batera (batzuk psikologoak, beste batzuk soziologoak) Emaize taldea sortu zuen.

Hasieran Emaize taldearen helburua hiesaren aurka lan egitea zen. Baina berehala atzeman zuten hiesa ezin zutela gai isolatua balitz bezala jorratu. Gauzak horrela, hiesa sexu heziketaren barruan lantzen hasi ziren.

Egun bi arlotan lan egiten dute. Lehenik eta behin, prostitutekin; eta bestalde, beste zenbait giza taldeekin (edadetuekin, gazteekin, emakumeekin...); hiesa eta sexuaren bitartez transmititzen diren gaixotasunak lantzen dituzte. Bestalde, sexu heziketa lantzen dute hainbat giza taldeekin.

EZTABAIDA PIZTU

«Jendea pentsatzera, eztabaidatzera, prostituzioari buruz zer uste duen azaltzera bultzatu dugu»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ HONATAGO
-ZI-

GAUR:
MEMORIAREN ETXEAN

Kathleen Raine

Jadanik aldatu da dena.
Ene maite, ez zenuke ezagutuko plaza.
Zure bila nabil memoriaren etxean



Baina han ere huts bihurtzen gelak

